

# Mineralekin lotutako gatazkei buruzko politika

Cikautxon lanean dihardugu gure produktuetan ez daitezen egon gatazkekin lotuta dauden mineralak, Kongoko Errepublika Demokratikoko edo inguruko herrialdeetako gatazkei babesa edo finantzazioa ematen dieten meatzeetatik datozenak. Horrenbestez, hitz ematen dugu honela jokatuko dugula:

- Cikautxoren zer produktutan egon daitezkeen ikertuko dugu, eta gure ahaleginak horretara bideratuko ditugu.
- Ez ditugu erosiko gatazkekin lotuta dauden mineralak dituzten produktuak eta materialak.
- Hornitzaileei eskatuko diegu Cikautxori helarazten dizkioten produktuetako eta materialetako mineralak gatazkarik gabeko iturrietakoak izan daitezela.
- Merkataritza gatazkarik gabekoa izan dadin lagunduko dugu; horretarako, sustatuko dugu gure hornitzaileek ez ditzatela baztertu bidezkoak diren mineral-iturriak.

Horrez gain, bezeroei hitz ematen diegu informazioa zabaltzeko betebeharrak beteko ditugula.

Konpromiso horiek betetzeko, honako neurri hauek hartu ditugu:

- Hornitzaileei eskatu diegu gatazkekin lotutako mineralei buruzko politika bat abiarazteko, eta behar bezala joka dezatela mineral horien iturria ikertzeko.
- Hornitzaileekin hartu-emanean gabilta, hori guztia betetzen dutelako frogak modu egokian helaraz ditzaten.

Etorkizunean, hornitzaileek ekimen honetan parte hartu nahi izatea kontuan hartuko dugu hornidura-beharrei buruzko erabakiak hartu behar ditugunean.

Gatazkekin lotutako mineralen jarraipena egiten duten beste enpresa askotan bezala, eta enpresa handia eta konplexua garenez gero, gurean ere denbora beharko dugu horrelako mineralen erabilerari buruzko informazio guztia biltzeko, eta beraz, kezka horiei guztiei heltzeko.



**Zuzendari nagusia**